

9/2019 FORU AGINDUA, urtarrilaren 11koa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, Gizarte Politiketako Kontseilariaren otsailaren 23ko 196/2013 Foru Agindua aldatzen duen Foru Agindua prestatzeko prozedurari hasiera ematen diona. Horren bidez, mendekotasuna duten pertsonak laguntzaile pertsonala izateko dirulaguntzak arautzen ziren.

Ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa. Foru Dekretu horretan ezartzen dira Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoan aplikatzekoak diren gizarte zerbitzuen sistema publikoaren prestazioak.

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Balorazioen eta Zerbitzuen Zuzendariordetzak proposatu zuen 3. artikuluko c apartatua kentzea. Apartatu horrek mendeko larri eta moderatuendako laguntzaile pertsonala kontratatzeko gutxieneko ordu kopurua eskatzen du. Horrez gain, proposatzen du 3. artikuluko b apartatua garatzea, definituz bizimodu independenterako plan gisa zer ulertzen den, autonomoagoa izateko, eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretan.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 59 artikulua ezartzen du erregelamenduzko xedapenak egiteko prozesua Nafarroako Gobernuan gai horretan eskuduna den kontseilariak hasiko duela eta hark prozeduraz arduratuko den organoa izendatuko duela.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1.- Gizarte Politiketako kontseilariaren otsailaren 23ko 196/2013 Foru Agindua aldatzen duen Foru Agindua prestatzeko prozedura hastea. Foru agindu horrek mendekotasuna duten pertsonak laguntzaile pertsonala izateko dirulaguntzak arautzen ditu.

2.- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Balorazioen eta Zerbitzuen Zuzendariordetza izendatzea prozeduraz arduratzen den organoa izan dadin.

3.- Foru Agindu hau jakinaraztea Prestazioen Koordinazio Administratiboaren Atalari, Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Atalari eta Balorazioen eta Zerbitzuen Zuzendariordetzari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2016ko aren (e)an

ESKUBIDE SOZIALETAKO KONTSEILARIA

Miguel Laparra Navarro